## Turtziozko Udala

### Ezkontza zibila (16/2016 Alkatetzaren Dekretua)

Apirilaren 11ko 16/2016 zenbakiko Alkate Dekretu bidez, erabaki da Luis Alberto Gutiérrez Martínez zinegotziari eskuordetzan eskumenak ematea David Domínguez Arana jaunak eta Maitane Cervero Madrazo andreak 2016ko ekainaren 24an, ostirala, Ezkontza Zibila egin dezaten.

Eskuordetze horrek ondorioak izango ditu Dekretu hau Luis Alberto Gutiérrez Martínez zinegotziari jakinarazten zaion egunaren biharamunetik hasita, eta eragina izango du bakarrik Ezkontza Zibil hau ospatzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzearen kalterik gabe.

Turtziozen, 2016ko apirilaren 11n.—Alkatea

(II-1570)

## Ayuntamiento de Trucios

### Matrimonio civil (Decreto de Alcaldía 15/2016)

Mediante Decreto 16/2016, de 11 de abril, de la Alcaldía, se ha resuelto delegar en el concejal don Luis Alberto Gutiérrez Martínez la competencia para autorizar el Matrimonio Civil entre don David Domínguez Arana y doña Maitane Cervero Madrazo el viernes día 24 de junio de 2016.

La delegación tendrá efecto desde el día siguiente a la fecha de notificación de este Decreto al concejal don Luis Alberto Gutiérrez Martínez, y tendrá eficacia sólo para la celebración del presente Matrimonio Civil, sin perjuicio de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Trucíos, a 11 de abril de 2016.—El Alcalde

(II-1570)

## Barakaldoko Udala

### Bide publikoetan ostalaritzako establezimenduetako terrazak jartzeari buruzko ordenantzaren aldaketa.

Bide Publikoetan Ostalaritzako Establezimenduetako Terrazak Jartzeari Buruzko Ordenantza behin-behinekoz onartzeko akordioa 2016ko urtarrilaren leheneko 15. aleko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenez, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70. artikuluan ezarritako jendaurreko epea alegaziorik batere aurkeztu gabe amaitu denez, 16.03.11ko 01828 zenbakiko Alkatetza Dekretu bidez onartutakoa betez, aipatutako Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartua izan dela adierazi da. Iragarkia argitaratu eta hurrengo 15 egunak igarotakoan jarriko da indarrean aipatu Ordenantza.

Onartu den aldaketak 4, 7, 8, 9, 11, 12, 15, 20, 21 eta 22 artikuluei eragiten die, eta honela geratu dira idatzirik, hitzez hitz:

***«4. artikulua.—Baimena jaso dezaketen establezimenduak***

Behar bezala legeztaturiko eta berdinetsitako ostalaritzako establezimenduei soilik emango zaizkie terrazak izateko baimenak, VI. taldeetan daudenei izan ezik, eta ostalaritza eta berdinetsitako establezimenduen Ordenantza Arau-emailean ezarritako sailkapenarekin bat etorriz. Txokoei ere ez zaizkie emango, ez eta sozietate gastronomikoei eta parekoei ere. VII. Taldeko jarduerei dagokienez, kanpoko aldea bereiztea ez dakartenak baino ez dira haizu izango.

Behar bezala legeztatutakotzat joko da jarduera, eskatzaileak jarduera edo/eta irekitze lizentzia eskuratua duenean, bai eta, titulartasuna aldatzekotan, aldez aurretik jakinarazi ondoren, aldeko txosten teknikoa eskuratua duenean ere.

***7. artikulua.—Irizpide estetikoak***

1. Era horretako instalazioetako baimenaren titularrak ezin izango du oinezkoen guneetan, plazetan eta espazio aske berezietan, plastikozko altzaririk ezta merkataritza-publizitateaz edo babeslearen ezaugarriz apaindutakorik ere erabili; aluminiozkoak edo altzairu herdoilgaitzezko egiturak baino ez dira onartuko.

2. Gainera, esparru berean edo/eta oinezkoentzako guneetan jartzen diren eguzki-oihalek eta eguzkitakoek izango duten diseinua eta tratamendu kromatiko unitarioa inola ere ez da deigarria edo nabarmena izango.

***8. artikulua.—Baimena emateko eskabidea eta erantsitako agiriak***

1. Udaletxean aurkeztu beharko du interesatuak eredu ofizialean egindako baimen eskaera, jarduera hasi baino hilabete lehenago, gutxienez. Epez kanpo egindako eskaerei Ordenantza Fiskaletan jasotako epe murritzezineko kitapena egingo zaie. Instalazio-aldia nahiz haren konfigurazioa aldatzea proposatzeko epe orokor berbera izango dute baimendutako terraza daukaten ostalaritza- establezimenduek.

## Ayuntamiento de Barakaldo

### Modificación de la ordenanza para la instalación de terrazas de establecimientos de hostelería en la vía pública.

Habiéndose publicado en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 15 de fecha 25.01.16 el acuerdo de aprobación inicial de la «Modificación de la Ordenanza para la instalación de terrazas de establecimientos de hostelería en la vía pública», y una vez finalizado el plazo de exposición al público establecido en el artículo 70 de la Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, sin que se hayan presentado alegaciones, en cumplimiento de lo aprobado mediante Decreto de Alcaldía n.º 01828 de 11.03.16, se declara definitivamente aprobada la modificación de la referida Ordenanza, que no entrará en vigor hasta transcurrido el plazo de 15 días siguientes a esta publicación.

La modificación aprobada afecta a los artículos 4, 7, 8, 9, 11, 12, 15, 20, 21 y 22, que quedan redactadas con el siguiente tenor literal:

***«Artículo 4.—Establecimientos autorizables***

Las autorizaciones de terrazas sólo se concederán a los establecimientos de hostelería y asimilados debidamente legalizados, excepto a los incluidos en el grupos VI conforme a la clasificación establecida en la Ordenanza Reguladora de Hostelería y establecimientos asimilados, ni a txokos y sociedades gastronómicas y similares. En el caso de Actividades pertenecientes al Grupo VII, sólo se permitirán las que no supongan una singularización al exterior.

Se considera que la actividad se encuentra debidamente legalizada cuando el solicitante dispone de licencia de actividad y/o apertura y en el caso de cambio de titularidad cuando haya presentado comunicación previa y disponga de informe técnico favorable.

***Artículo 7.—Criterios estéticos***

1. En las áreas peatonales, plazas y espacios libres singulares, ningún titular de licencia para este tipo de instalaciones podrá utilizar mobiliario de plástico, ni que esté decorado con publicidad comercial o de esponsorización, admitiéndose únicamente el mobiliario con estructura de aluminio o acero inoxidable.

2. Los toldos y/o sombrillas ubicadas en el mismo área o zona peatonal, deberán tener un diseño y tratamiento cromático unitario que en ningún caso será llamativo o estridente.

***Artículo 8.—Solicitud de autorización y modificación.Documentación adjunta***

1. La persona interesada deberá presentar ante el Ayuntamiento la correspondiente solicitud de autorización según modelo tipo oficial, con una antelación mínima de un (1) mes a la fecha de inicio prevista de la actividad. Las solicitudes que se realicen fuera de estos plazos conllevarán la liquidación por el periodo irreductible que figure en las Ordenanzas Fiscales. Los establecimientos hosteleros que cuenten con terraza autorizada utilizarán el mismo plazo general para proponer la modificación de la temporada de instalación de la misma o de su propia configuración física.

cve: BAO-BOB-2016a073

Hasieran baimendutako epearen luzapena besterik ez denean aldaketa, hasieran baimendutako epea amaitu baino lehenago egin beharko da horretarako eskaria. Luzapen eskaera bakar bat onartuko da denboraldi bakoitzerako ((urte naturala hartuko da halakotzat), eta eskaerarekin batera, luzatutako aldiari dagozkion udal tasen ordainagiria aurkeztu beharko da.

2. Hauexek agerrarazi behar dira eskabidean:

— Eskatzailearen datuak, edo bestela, haren ordezkariarenak; eta bereziki, horiek nor diren adierazten dutenak, izena eta bi abizen edo sozietatearen izena, helbidea, jakinarazpenetarako helbidea eta udal egintzak jakinarazteko bideak.

— Jarduera nagusiaren izen komertziala, eta kokapena, kale-izendegiaren araberakoa.

— Lokal nagusiaren Ondasunen Higiezinen gaineko Zergaren zenbaki finkoa.

— Jarri beharreko instalaziorako epea, 10. artikuluan ezarritakoarekin bat, bai eta okupatuko den azalera ere, zeina berbera izango den denboraldi osoan zehar.

3. Eskabidea honako hauekin batera aurkeztu behar da:

— Alboko establezimenduen baimenaren egiaztagiria, baldin eta instalazioak jarduera nagusia dagoen establezimenduaren fatxadaren mugak gainditzen baditu. Baimena beren beregi emango da terraza jarrita egongo den aldirako.

— Sarrera libre eta erabilera publikoko espazio pribatuetan, espazioaren titularren baimena.

— Erantzukizunpeko adierazpena, non jarduera Ordenantza honen 4. artikuluan ezarritakoari jarraiki legeztatua izan dela eta Udal Administrazioarekiko zorrik ez duela adieraziko duen eskatzaileak.

— Ondorengoei buruzko informazio teknikoa: Zer instalazio edo altzari jarriko diren, zenbat denbora emango den terraza muntatu eta desmuntatzen eta jardueraren ordutegia.

— Jabetza publikoko elementuei eta pertsonei eragin diezazkieketen kalteak bere gain hartzeko konpromisoa, bai eta behar diren bermeak eskaintzekoa ere, hala nola, eskudirutan jarritako fidantzak eta erantzukizuneko aseguru polizak, beti ere, kasu bietan zer kapital bermatu diren eta zer modutan egiaztatuko diren zehaztuz. Gauza biak aldi berean egin beharko dira, edo bestela, lizentzia eman aurretik. Polizan agertzen den aseguratua eta horretarako gaitzen duen tituluan agertzen dena eta baimen eskatzailea pertsona berbera izan behar da.

### *9. artikulua.—Baimena ematea*

1. Aurreko artikuluetan exijituriko moduan egin ondoren eskaera, ikuskapen-bisitaldia egingo da edo eskatzailearekin jarriko gara harremanetan terrazaren neurri zehatzak eta kokapena zehazteko, eta txosten tekniko eta juridikoak egin ondoren, hilabeteko epean emango du ebazpena udal agintaritza eskudunak; isiltasuna ezezkoa da.

2. Nolanahi ere, zenbait inguruabar aintzat hartuta emango da baimena, ostalaritzako establezimenduaren azalera baliagarria bera eta baimendutako gehieneko edukiera esate baterako kontuan hartuta. Era berean, aintzat hartu da: Ostalaritzako eta beste era batzuetako establezimenduekin batera egotea, bai eta, herrigune jakin bakoitzean dauden zerbitzu publikoak, oinezkoen trafikoaren intentsitatea eta bideko merkataritza-ekipamendu maila, eta abar. Ostalaritzako beste establezimendu batzuekin batera gertatzekotan, eskaera egin dezaketen establezimendu guztiak entzun eta gero, ahal dela, espazio publikoa ektitatez banatuko da.

3. Txosten teknikoa beste agiri edo fitxa batean agerraraziko da, non baimendutako instalazioaren baldintza konkretuak marraztuta agertuko diren (kokapena, okupazio-azalera, mahai eta aulkien kopurua, beste elementu batzuk eta abar).

Cuando la modificación pretendida se limite a ser una prórroga del plazo inicialmente autorizado esta deberá formularse con anterioridad a la finalización del plazo inicialmente otorgado. Solo se admitirá una solicitud de prorroga por temporada(entendiendo como tal el año natural) y deberá venir acompañada del justificante de abono de las tasas municipales por el periodo prorrogado.

2. En la solicitud deberá figurar:

— Datos de la persona solicitante y, en su caso, de su representante, en particular, los relativos a su identidad, con especificación de nombre y dos apellidos o razón social, domicilio, domicilio a efectos de notificaciones y medios de notificación de los actos municipales.

— El nombre comercial y el emplazamiento, según callejero, de la actividad principal;

— El número fijo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles correspondiente al local principal;

— El plazo de la instalación pretendido, conforme a lo previsto en el artículo 10 y la superficie a ocupar que deberá ser la misma a lo largo de toda la temporada.

3. La solicitud deberá venir acompañada además de:

— Acreditación documental de la autorización de los establecimientos colindantes, en los supuestos en los que la instalación exceda de los límites de la fachada del establecimiento que constituye la actividad principal Esta autorización se realizará expresamente por el tiempo que se pretenda mantener la terraza.

— En el caso de espacios privados de acceso libre y uso público autorización de los titulares del espacio.

— Declaración responsable en el que el solicitante haga constar que la actividad se encuentra debidamente legalizada de conformidad a lo dispuesto en el Art 4 de la presente Ordenanza así como la inexistencia de deudas con la Administración Municipal.

— Información técnica relativa a las instalaciones o muebles con los que se pretenda realizar la ocupación, tiempos de montaje y desmontaje, horario de funcionamiento o realización de la actividad.

— El compromiso de asunción de los daños que puedan derivarse para los elementos del dominio público y para las personas y el consiguiente ofrecimiento de las necesarias garantías, tales como fianzas en metálico y pólizas de seguros de responsabilidad, especificando los capitales a garantizar en ambos casos así como el modo y manera de proceder a su acreditación, que en todos los casos habrá de ser simultáneo, sino previo, al otorgamiento de la licencia. El asegurado que figure en la póliza deberá ser coincidente con el titular que figure en el titulo habilitante y con el solicitante de la autorización.

### *Artículo 9.—Otorgamiento de la autorización*

1. Formulada la petición, en los términos exigidos en los artículos precedentes, será girada visita de inspección o se contactará con el solicitante para determinar la concreta dimensión y emplazamiento de la terraza, y previos los pertinentes informes técnico y jurídico, la Autoridad Municipal competente, resolverá en el plazo de un mes, teniendo el silencio carácter negativo.

2. La autorización se otorgará, en todo caso, considerando circunstancias tales como la propia superficie útil del establecimiento de hostelería y aforo máximo autorizado. Igualmente se tendrá en cuenta su concurrencia con otros establecimientos de hostelería, y de otra tipología, en cada espacio público concreto, los servicios públicos existentes, la intensidad del tránsito peatonal y el nivel de equipamiento comercial de la vía, etc. En el caso de concurrencia con otros establecimientos de hostelería se procurará la distribución equitativa de los espacios públicos previa audiencia a todos los establecimientos que puedan ser potenciales solicitantes.

3. El informe técnico se plasmará en un documento o ficha en que se recojan gráficamente las condiciones concretas (emplazamiento, superficie de ocupación, número de mesas y sillas aproximados a criterio técnico municipal, y otros elementos.) de la instalación que se autorice.

cve: BAO-BOB-2016a073

4. Baimen ematea bera eta eskatu diren gainerako beste elementuak azalduko dira baimenetan, baita eskatu ez diren arren nahitaez instalatu beharrekoak ere.

5. Aldeko udal ebazpenak interesatuari jakinarazi beharko zaizkio, dagokion bulegora ager dadin, eta han jakinaraziko diote baimen-ematea bai eta emango ere titulua, aurretik, bermeei, erantzukizun-aseguruei eta udal tasen ordainketari buruzko aurretiazko baldintzak betetzen dituela egiaztatuz. Baldintza horiek betetzen direla egiaztatu ezean, ez da titulurik emango eta ez betetzeari buruzko egiaztapen-eginbidea emango da. Horrenbestez, eskaera bertan behera geratuko da.

### *11. artikulua.—Terrazen funtzionamendu denbora edo epealdia*

Denboraldi hauetarako baimenduko dira ostalaritzako terrazak.

— Urteko denboraldia: Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.
— Denboraldi luzea: Apirilaren 1etik abenduaren 31ra.
— Denboraldi ertaina: Apirilaren 1etik irailaren 30era.
— Udako denboraldia: Uztailaren 1etik irailaren 30era.
— Urtean, hilabete bateko denboraldia: Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.
— Denboraldi etena: Urteko baimena eskabidea egitean, okupaziorako hileko hainbat epealdi zehaztu daitezke urte naturalaren barruan, etenak edo jarraituak, baina gutxienez hilabete naturalekoak izan beharko dute.

Ez da onartuko denboraldi aldaketarik, denboraldi bakoitzaren barruan. Hurrengo denboraldirako soilik izango ditu ondorioak eskatutako aldaketak, salbu eta egin nahi den aldaketa hasieran baimendutako epea luzatzeko besterik ez bada.

### *12. artikulua.—Berriztapena*

Ematen diren denboraldiaren iraupenari dagokio lizentzien indarraldia, baina berehala berriztuko dira hurrengo ekitaldirako eta denboraldi bererako baldin eta titularrak kontrakorik adierazten ez badu aurreko ekitaldiko urriaren 1etik azaroaren 30era bitarteko epealdian edo beren beregi egingo den jakinarazpenean. Edozein kasutan ere, baimendutako terraza jarri baino hamabost (15) egun lehenago uko egin dakioke jartzeari.

Alboko establezimenduak ukituko dituen terraza jartzeko baimena jaso dutenek hurrengo ekitaldirako baimena berritzerakoan, eguneratuta aurkeztu beharko dute alboko establezimenduen adostasuna, berriztatzeko jakinarazpenean emandako epean.

Jardunaldi berrirako erantzukizun zibileko asegurua indarrean dela egiaztatzen duen agiria bai eta udal tasak ordaindu izanaren egiaztagiria ere.

Udal administrazioak ofizioz ekingo dio jardueraren titularrak udalarekin zorrik ez duela eta jarduera nagusiaren lizentzia indarrean dela egiaztatzeari.

### *15. artikulua.—Instalazioa egiteko baldintzak*

1. Ez da baimenik emango estalki egonkorra duten terrazak herri-jabetzako eta herri erabilerarako guneetan jartzeko, horrek lur-zatiari dagokion eraikigarritasuna eta aprobetxamendu pribatiboa handitzea baitakar, ez eta ibilgailuak aparkatuta gordetzeko estalkia duten guneetan jartzeko ere.

2. Oinezkoen eremuetan, plazetan eta gune libre berezietan kokaturiko terrazak behin-behineko elementuekin estal daitezke; erraz desmuntatzeko modukoak izango dira, espaloiaren gainean ainguratuko dira eta, gainera, baldintza hauek bete behar dituzte.

a) Gehienez, lau ainguraketa-toki izan ditzakete luzetarako lau (4) metro bakoitzeko. Egitura-elementu bertikalak kokatzeko puntua joko da ainguraketa puntutzat.

4. Las autorizaciones expresarán cuantos otros elementos se hayan solicitado y proceda su autorización, así como los que sin solicitarse sean de obligada instalación.

5. Las resoluciones municipales favorables se comunicarán, al interesado o interesada, a fin de que comparezca en la oficina competente, donde se le notificará el acto autorizante y se le facilitará el Título correspondiente, previa comprobación del cumplimiento de los requisitos previos referentes a garantías, seguros de responsabilidad y abono de las tasas municipales. En caso de no acreditarse el cumplimiento de tales requisitos en el plazo otorgado, no se expedirá el Título y se extenderá diligencia acreditativa del incumplimiento que implicará el desistimiento de la solicitud.

### *Artículo 11.—Ámbito temporal o periodo de funcionamiento de las Terrazas*

Las terrazas de hostelería se autorizarán por las siguientes temporadas.

— Temporada anual: Del 1 de enero al 31 de diciembre.
— Temporada larga: Del 1 de abril al 31 de diciembre.
— Temporada media: Del 1 de abril al 30 de septiembre.
— Temporada de verano: Del 1 de julio al 30 de septiembre.
— Temporada de un mes al año: Del 1 de enero al 31 de diciembre.
— Temporada discontinua: Autorización anual pudiendo concretarse en el momento de la solicitud diversos periodos mensuales de ocupación a lo largo del año natural, continuos o discontinuos, que deberán ser como mínimo de un mes natural.

No se admiten cambios de temporada a lo largo de cada temporada. El cambio que se solicite sólo tendrá efectos para la temporada siguiente, salvo que la modificación pretendida se limite a ser una prórroga del plazo inicialmente autorizado.

### *Artículo 12.—Renovación*

Las licencias tienen una vigencia correspondiente a la duración de la temporada para la que son concedidas pero serán renovadas automáticamente para el siguiente ejercicio y por la misma temporada, incluido el periodo prorrogado, cuando no se manifieste lo contrario por su titular con anterioridad al plazo comprendido entre el 1 de octubre y 30 de noviembre del ejercicio anterior o en la comunicación específica que se curse al efecto. En cualquier caso podrá desistir con una antelación de 15 días al inicio del concreto periodo de instalación de la terraza que estuviera autorizado.

Los establecimientos autorizados para colocar una terraza que afecte a establecimientos colindantes, que renueven su autorización para el siguiente ejercicio, deberán aportar durante el plazo otorgado en la comunicación de renovación, la actualización de la conformidad de los establecimientos colindantes.

Así mismo deberán aportar documentación acreditativa de la vigencia del seguro de responsabilidad civil para el nuevo ejercicio y el abono de las tasas municipales.

La administración municipal de oficio procederá a la comprobación de oficio de los aspectos relativos a la constatación de inexistencia de deudas con la administración municipal, así como de la vigencia de la licencia de la actividad principal.

### *Artículo 15.—Condiciones de instalación*

1. No se concederán autorizaciones para la instalación de terrazas con cubierta estable en espacios de propiedad privada y uso público por implicar ello un aumento de edificabilidad y del aprovechamiento lucrativo correspondiente a la parcela, o cuando su instalación se pretenda en espacios que constituyan la cubierta de una guardería aparcamiento de vehículos.

2. Las terrazas ubicadas en Áreas peatonales, plazas y espacios libres singulares podrán cubrirse con elementos de carácter provisional, fácilmente desmontables, y anclados sobre la acera, que reúnan además los requisitos siguientes:

a) Sólo podrán disponer, como máximo, de cuatro puntos de anclaje por cada cuatro (4) metros de desarrollo longitudinal; considerándose como punto de anclaje el punto de posicionamiento de los elementos estructurales verticales, es decir, la placa de anclaje.

cve: BAO-BOB-2016a073

b) Eskuineko oinak ezin bana daitezke zeharka bi (2) metrotik gora, urrutien dauden alderdietatik.

c) Eskuineko edozein oinen eta espaloiko kanpoko ertzaren arteko distantzia gutxienez hogeita hamar (30) zentimetrokoa edo hirurogei (60) zentimetrokoa izango da, ordenantza honen 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, salbu eta babes-baranda bat badago. Hala denean, distantzia hori hamar (10) zentimetrora murriztu daiteke.

d) Estalkiko instalazioko edozein irtenguneren barruko ertzak ez du berrehun eta hogei (220) zentimetroko garaiera gaindituko.

e) Instalazioko alboko babesak estali egingo dira goiko aldean, eta horien garaierak ez du gaindituko bat koma berrogeita hamarreko (1,50) garaiera. Bestalde, ezin jar daiteke leiho gidaridunik.

f) Luzetara, ezin du establezimenduari dagokion fatxadaren luzera gainditu, eta gutxieneko azalerak 10 metro koadrokoa izan behar du.

g) Ez dira onartuko lau (4) metrotik gorako sakonera duten estalki egonkorrak.

3. Estalkiek, gainera, diseinu berezi irekia izango dute, non bisten iragazkortasuna lehenetsi beharko den; ez da, gainera, hiriaren pertzepzioa eragotziko eta ez du edukiontzi trinkoaren tankerarik izango. Egiturako elementuak, ahal dela, altzairuzkoak izango dira (herdoilezina, galdaketakoa...) eta pinturako akabera izanez gero, oxiron motakoa. Higigarrien egitura aluminiozkoa edo altzairu herdoilgaitza izango da.

4. Estalki egonkorrak ainguraketa barik jarri ahal izango dira, horien egonkortasuna eta higiezintasuna behar bezala bermatzen bada.

5. Ez da estalki egonkorrik baimenduko baldin eta bide-segurtasunari kalteren bat eragin badiezaioke, oinezkoen trafikoa nabarmen zailtzen badu, inguruko eraikinen eta lokalen segurtasuna uki badezake, desegokia bada formalki edo inguruarekin bat ez badator.

***20. artikulua.—Lege-hausteak arinak***

Ondorengo egintzak eta ez-egiteak hartuko dira arau-hauste arintzat:

1. Jarduera hasteko edo ixteko ordutegia ez betetzea gehienez ordu erdiaren barruan.
2. Zarata egitea terraza muntatzeko eta desmuntatzeko lanetan.
3. Baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea, gaindikina baimendutako azaleraren % 10 baino handiagoa ez bada.
4. Baimendutako terrazako instalazioak arinki narriatzea edo ez garbitzea.
5. Baimendutako terraza kokatzen den herrigunearen eta ingurua ez garbitzea, diharduen orduetan bezala ordu jarduera bukatutakoan ere.
6. Udal baimena egiaztatzen duen agiria ez erakustea bezeroek, herritarrek eta agintaritzaren agenteek ikusteko moduko tokian.
7. Baimendutakoa ez bestelako eran jartzea edo kokatzea terraza.
8. Jardueraren ondorioz, establezimenduari erantsitako edo albokoetako hiri-altzari eta apaingarrietako elementuak arinki narriatzea.
9. Instalazioen ondoan tresnak, ontziak edo edozein eratako ondasunak uztea, baita herri-bidean mahaiak eta aulkiak edo beste edozein elementu pilatzea ere terrazek diharduten orduetan.
10. Ordenantza honetan edo baimena ematen duen tituluan ezarritako betebeharrak ez betetzea edo debekuak urratzea, arau-hausteak larritzat edo oso larritzat beren beregi jotakoak ez direnean.

b) Los pies derechos no podrán separarse transversalmente más de dos (2) metros entre sus caras más alejadas;

c) La distancia entre cualquier pie derecho y la arista exterior del borde de la acera, no será inferior a treinta (30) centímetros o sesenta (60) centímetros de conformidad a lo previsto en el artículo 6 de esta ordenanza, salvo cuando exista barandilla de protección, en cuyo caso podrá reducirse a diez (10) centímetros de ésta;

d) El borde inferior de cualquier elemento saliente en la instalación de la cubrición, deberá superar la altura de doscientos veinte (220) centímetros.

e) Las protecciones laterales de la instalación serán abiertas en su parte alta y presentarán una altura que en ningún caso superará uno coma cincuenta (1,50) metros, sin que puedan colocarse ventanas correderas.

f) Su desarrollo longitudinal no supere la longitud de fachada correspondiente al establecimiento interesado y su superficie mínima sea de 10 metros cuadrados.

g) No se autorizarán cubiertas estables de mas de cuatro (4) metros de profundidad.

3. Las cubiertas presentarán además un diseño singular abierto, en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas sin que supongan obstáculo a la percepción de la ciudad ni operen a modo de contenedor compacto. Los elementos estructurales serán preferentemente de acero (inoxidable, fundición...), y en el supuesto de acabado en pintura éste será del tipo oxirón. La estructura del mobiliario deberá ser de aluminio o acero inoxidable.

4. Las cubiertas estables podrán ser instaladas sin anclajes cuando se garantice de forma adecuada su estabilidad e inmovilidad.

5. No se autorizaran cubiertas estables cuando supongan algún perjuicio para la seguridad viaria, dificulte sensiblemente el tráfico de peatones, pueda afectar a la seguridad de los edificios y locales próximos, resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno.

***Artículo 20.—Infracciones Leves***

Constituyen infracciones leves las siguientes acciones u omisiones:

1. El incumplimiento del horario de inicio o cierre de la actividad en menos de media hora.
2. La producción de ruidos durante las labores de montaje y desmontaje de la terraza.
3. La ocupación de mayor superficie de la autorizada siempre y cuando el exceso no supere el 10% de la superficie.
4. El deterioro leve o la falta de limpieza de las instalaciones que conforman la terraza autorizada.
5. La falta de limpieza del espacio público donde se emplace la terraza autorizada, y sus proximidades, tanto durante su funcionamiento como al término de la misma.
6. La falta de exposición en lugar visible para la clientela, vecindad y agentes de la autoridad del documento acreditativo de la autorización municipal.
7. La colocación o emplazamiento de la terraza de forma diferente de la autorizada.
8. El deterioro leve de los elementos de mobiliario y ornamentales urbanos anejos o colindantes al establecimiento, producidos como consecuencia de la actividad objeto de licencia.
9. Depositar acopios, envases o enseres de cualquier clase junto a las instalaciones, así como el apilamiento de mesas y sillas o cualquier otro elemento en la vía pública, durante el funcionamiento de la terraza.
10. Todo incumplimiento de obligaciones y vulneración de prohibiciones establecido en la presente Ordenanza o contemplado en el título autorizante, no calificado expresamente como falta grave o muy grave.

cve: BAO-BOB-2016a073

***21. artikulua.—Lege-hauste larriak***

Ondorengo egintzak eta ez-egiteak hartuko dira arau-hauste larritzat:

1. Arau-hauste arina berriz egitea bi aldiz baimenaren indarraldiak iraun bitartean edo urte natural bakoitzaren barruan.
2. Baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea, gaindikina baimendutako azaleraren % 30 baino handiagoa ez bada.
3. Lizentziaren xedeko jardueraren ondorioz, establezimenduari erantsitako edo albokoetako hiri-altzari eta apaingarrietako elementuak larriki narriatzea,narriatzeak arau-hauste arina edo oso larria ez badira.
4. Lanaldia amaitutakoan kanpoko altzariak ez kentzea, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
5. Baimendu gabeko publizitatea duten mahaiak, aulkiak, itzalkinak, olanak, etab. jartzea.
6. Edozein eratako kartelak, publizitate-hesiak edo ikusmina erakarriko duten beste elementu batzuk jartzea, baita, publizitatekoa ez izan arren, herri-bidea hartzen duten eta beren beregi baimenduta ez dauden bestelako elementuak ere.
7. Baimendutakoaz bestelako altzariak jartzea edota erabiltzea.
8. Honako hauetan sartzea galarazten edo zailtzen duten elementuak jartzea: Eraikin, lokal komertzial edo zerbitzuetako eraikinetan, behar bezalako seinalea duten oinezkoen pasabideetan, larrialdi irteeretan eta udalak baimendutako ibilgailuen sarreretan, baita zirkulazio seinaleak ikustea galarazten dutenetan ere.
9. Ur-hartuneak, ur-paldoak, estolda-erregistroak, garraio publikoko geralekuak, transformazio zentroak eta zerbitzu publikoetako erregistro-kutxetak hartzea, herri-zerbitzuek baliatzerakoan, berehala erabiltzerik ez badute.
10. Baimena ematean ezarritako baldintza espezifikoak ez betetzea.
11. Anplifikazio aparatuak edo ekipoak edo irudi, soinu edo bibrazio akustikoen erreproduzitzaileak jartzea terrazan.
12. Musika emanaldiak egitea udal baimenik gabe.
13. Baimena lortzeko aurkezturiko datuak edo dokumentuak ezkutatzea, manipulatzea edo faltsutzea.
14. Lizentziaren agiria edo horrekin lotutako beste edozein agiri ez erakustea hala eskatzen duten udaltzainei edo ikuskapen zerbitzuko agenteei.
15. Hasteko edo ixteko ordutegia ez betetzea ordu erditik gorako eta ordubetetik beherako tartean.
16. Titularra ez den norbaiti terraza ustia dezan lagatzea.

17- Erabilera berezi edo pribatiboaren ondorioz, ondasunetan edo herrigunean kalteak eragitea, baimenik izan zein ez, kalteak 3.000 eurotik gorakoak eta, gehienez, 6.000 eurokoak direnean.

18. Baimendutako jardueraren edota erabileraren arriskuak estaliko dituen erantzukizun zibileko asegururik ez edukitzea, nahitaezkoa denean.

***22. artikulua.—Lege-hauste oso larriak***

1. Baimenaren indarraldian edo urte natural berean bi arau-hauste larri egitea edo arau-haustean berrerortzea.

2. Baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea, gaindikina baimendutako azaleraren % 30 baino handiagoa bada.

***Artículo 21.—Infracciones Graves***

Constituyen infracciones graves las siguientes acciones u omisiones:

1. La reiteración, o la reincidencia, por dos veces en la comisión de faltas leves, durante la vigencia de la autorización o durante cada año natural.
2. La ocupación de mayor superficie de la autorizada, siempre y cuando el exceso no exceda del 30 % de la superficie.
3. El deterioro grave de los elementos del mobiliario y ornamentales anejos o colindantes al establecimiento, cuando se produzcan como consecuencia de la actividad objeto de la licencia o concesión, siempre y cuando no constituyan falta leve o muy grave.
4. La no retirada del mobiliario del exterior, una vez finalizado la jornada laboral, en los términos establecidos en la presente ordenanza.
5. La instalación de mesas, sillas, sombrillas, toldos, etc. que contengan publicidad no permitida.
6. La instalación de cualquier tipo de carteles, vallas publicitarias u otros elementos de reclamo, así como cualquier otro elemento que aún no siendo publicitario, suponga ocupación de la vía pública y no estén expresamente autorizados.
7. La colocación y/o utilización de mobiliario distinto del autorizado.
8. La colocación de elementos que impidan o dificulten el acceso a edificios, locales comerciales o de servicios; paso de peatones debidamente señalizados, salidas de emergencias y entradas de carruajes autorizados por este Ayuntamiento, así como la visibilidad de las señales de circulación.
9. La ocupación de las bocas de riego, los hidrantes, registros de alcantarillado, paradas de transporte público, centros de transformación y arquetas de registro de los servicios públicos de forma que impida su utilización inmediata por los servicios públicos.
10. El incumplimiento de las condiciones específicas que se hayan contemplado en el otorgamiento de la autorización.
11. La colocación en la terraza de aparatos o equipos amplificadores o reproductores de imagen, sonido o vibraciones acústicas.
12. La celebración de actuaciones musicales sin autorización municipal.
13. Ocultación, manipulación o falsedad de los datos o de la documentación aportada con la intención de obtener la autorización.
14. La no exhibición del documento de licencia u otro relacionado a cualquier agente de la policía local o del servicio de inspección que lo requiera.
15. El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en más de media hora y menos de una hora.
16. La cesión de la explotación de la terraza a persona distinta de su titular.
17. La generación de daños para el espacio o los bienes públicos, con ocasión de la utilización especial o privativa, esté o no autorizada, cuando los mismos superen los 3.000 euros y no excedan de 6.000 euros.
18. Carecer del seguro de responsabilidad civil que cubra los riesgos de la actividad y/o utilización autorizada, cuando ello resulte obligado.

***Artículo 22.—Infracciones Muy Graves***

1. La reiteración, o la reincidencia, en la comisión de dos faltas graves durante la vigencia de la autorización o en el mismo año natural.

2. La ocupación de mayor superficie de la autorizada, siempre y cuando el exceso supere el 30 % de la superficie.

cve: BAO-BOB-2016a073

3. Terraza bat jartzea aginduzko udal lizentzia izan barik.

4. Terraza baimendu gabeko denboraldian jartzea.

5. Lizentziaren indarraldia amaitutakoan edo udal agintaritzak hala eskatzen duenean instalazioak ez desmuntatzea.

6. Instalazioa berehala eteteko agindua ez betetzea, baldin eta horren ondorioz larriki kaltetzen bada bizikidetza eta berehala eta zuzenean beste pertsona batzuen lasaitasunerako edo erabilerako eskubide legitimoei eragiten bazaie, era guztietako jarduerei araudi aplikagarriarekin bat etorriz; edo herri osasungarritasunerako edo apaingarritasunerako kaltea sortzen bada eta horren ondorioz herri-zerbitzuaren erabilera edo funtzionamendua galarazten edo eragozten bada edo narriadura larria badakar herri-zerbitzuetako instalazio, ekipamendu, azpiegitura, herrigune edo haren edozein instalaziotarako.

7. Jarduera ordubete edo beranduago hasi edo ixtea, horren ondorioz kaltetzen bada bizikidetza, beste pertsona batzuen lasaitasunerako edo erabilerako eskubide legitimoei, osasungarritasun eta apaingarri publikoei eta era guztietako jarduerei (araudi ezargarriarekin bat etorrita) larriki, berehala eta zuzenean eraginez.

8. Erabilera berezi edo pribatiboaren ondorioz, ondasunetan edo herrigunean kalteak eragitea, baimenik izan zein ez, kalteak 6.000 eurotik gorakoak direnean.

9. Agiri manipulatuak edo faltsuak ematea.»

Barakaldon, 2016ko apirilaren 6an.—Alkate-Lehendakaria, Amaia del Campo Berasategui

(II-1587)

3. La instalación de una terraza careciendo de la preceptiva licencia municipal.

4. La instalación de una terraza en periodo de tiempo diferente del autorizado.

5. No desmontar las instalaciones, una vez terminado el período de vigencia de la licencia o cuando fuese requerido por la Autoridad Municipal.

6. El incumplimiento de la orden de suspensión inmediata de la instalación cuando de ello se derive una perturbación relevante de la convivencia que afecte de manera grave, inmediata y directa a la tranquilidad o al ejercicio de derechos legítimos de otras personas, al normal desarrollo de actividades de toda clase conformes con la normativa aplicable o a la salubridad u ornatos públicos, o cuando con ello se impida u obstruya el uso o funcionamiento de un servicio público o suponga un deterioro grave de equipamientos, infraestructuras, instalaciones de servicios públicos, espacios públicos o cualquiera de sus instalaciones.

7. El incumplimiento del horario de inicio o de cierre en más de una hora, cuando de ello se derive una perturbación relevante de la convivencia que afecte de manera grave, inmediata y directa a la tranquilidad o al ejercicio de derechos legítimos de otras personas, al normal desarrollo de actividades de toda clase conformes con la normativa aplicable o a la salubridad u ornatos públicos.

8. La generación de daños para el espacio o los bienes públicos, con ocasión de la utilización especial o privativa, esté o no autorizada, cuando los mismos superen los 6000 euros.

9. El suministro de documentación manipulada o falsa.»

En Barakaldo, a 6 de abril de 2016.—La Alcaldesa, Amaia del Campo Berasategui

(II-1587)

•

## Berriatuko Udala

**Iragarkia, biztanleen udal erroldan ofiziozko baja emateko prozedurari hasiera ematea onartu dela jakinarazteko (35/2016 Dekretua).**

Administrazio Publikoetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko 1992ko azaroaren 26ko Legearen 59.4. artikuluak ezarritakoa betetzeko, eta interesdunei beharrezko jakinarazpenak ezin izan zaiela egin kontuan hartuta, jarraian zehaztuko diren pertsonentzat jakinarazpena izan dadin, adierazi nahi da Alkatetzaren 2016ko martxoaren 22ko Dekretuak honakoa xedatu duela:

«Francisco Idoeta Argoitia jaunak eskatuta, prozedura instruitu da Babacar Sarr (Y-1246117-Z) eta Ibrahima Kane-ri (Y-00805602-H) ofiziozko baja emateko Berriatuko udalerriko Biztanleen Udal Erroldan. Prozedura aztertuta, hauxe erabaki dut:

*Lehenengoa:* Prozedura hasiko da Babacar Sarr eta Ibrahima Kane biztanleei Baja emateko, administrazioaren kabuz, Berriatua udalerriko Biztanleen Udal Erroldan, Etxepintxo kaleko, 8, 3. ezk. etxebizitzan ez direlako bizi. Hori guztia Toki erakundeen biztanleria eta lurralde mugaketaren gaineko Araudiaren 72. artikuluan (abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuak emandako idazkeran) xedatutakoari jarraituta egingo da.

*Bigarrena:* 15 asteguneko epea emango zaie aipatutako pertsonei, dekretu hau jakinarazten zaienetik aurrera zenbatzen hasita, horren gainean egokitzat jotzen dutena adierazi eta orain zein helbidetan bizi diren jakinaraz dezaten.

*Hirugarrena:* Dekretu hau Babacar Sarr eta Ibrahima Kane-ri jakinaraziko zaie eta Udal honetako Estatistika Atalari ere dekretu horren berri emango zaio, Babacar Sarr eta Ibrahima Kane-ren errolda-inskripzioetan prozedura hasi dela agerraraz dadin.»

Berriatuan, 2016ko apirilaren 12an.—Alkatea, Jon Arriola Espilla

(II-1557)

## Ayuntamiento de Berriatua

**Anuncio, para comunicar el inicio de procedimiento instruido para dar baja de oficio en el padrón municipal de habitantes (Decreto 35/2016).**

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 59.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común de 26 de noviembre de 1992 y no habiéndose podido practicar la pertinente notificación a los interesados, a fin de que sirva de notificación a las personas indicadas, se hace saber que la Alcaldía, por Decreto de fecha 22 de marzo 2016, ha dispuesto lo siguiente:

«Examinado el procedimiento instruido a instancias de don Francisco Idoeta Argoitia relativo a la baja de oficio de la inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes del municipio de Berriatua de Babacar Sarr (Y-1246117-Z) y de Ibrahima Kane (Y-00805602-H), vengo a disponer lo siguiente:

*Primero:* Iniciar procedimiento para dar de baja de oficio la inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes del municipio de Berriatua de Babacar Sarr y de Ibrahima Kane, por no residir en la calle Etxepintxo, 8, 3.º izda., de Berriatua, en virtud de lo dispuesto en el artículo 72 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, en la redacción dada por el Real Decreto 2612/1996, de 20 de diciembre.

*Segundo:* Conceder a las personas señaladas un plazo de 15 días hábiles, contados a partir de la notificación del presente Decreto, para que manifiesten lo que estimen conveniente al respecto y comuniquen el domicilio en el que viven habitualmente.

*Tercero:* Notificar el presente Decreto a Babacar Sarr y a Ibrahima Kane y dar cuenta a la Sección de Estadística de este Ayuntamiento para que se haga constar el inicio del procedimiento en la inscripción padronal de Babacar Sarr y de Ibrahima Kane.»

En Berriatua, a 12 de abril de 2016.—El Alcalde, Jon Arriola Espilla

(II-1557)

cve: BAO-BOB-2016a073